

# Euskal Herria ezkerretik eraikiz

Nazioak eta jendarteak ez dira izaki aldaezinak, pertsonak aldarazten dituzte eguneroko jardunean, etengabe. Ezker Abertzaleak ere, nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialeko estrategia aplikatzen duenean, horixe bera pentsatzen du, nazioa egin egiten dela eta jendartean aurkitzen ditugun modu eta maila guztietako injustiziak eta oztupoak gaurdanik konpondu behar direla, alegia.

Estrategia hori zehaztu nahi izan du **Batasunak** 2005. urte amaieran eratu duen *Bide Eginez* prozesuan eta, besteak beste, eztabaida-garai honetan jasotako ondorio politiko nagusiak eskuartean daukazun liburuxka honetan agertzen dira. 2004ko azaroan aurkeztutako konponbide demokratikora begirako *Orain Herria, Orain Bakea* berretsi eta, oraingoan, *Euskal Herria ezkerretik eraikiz* eskaintza politikoa euskal jendarteari aurkeztu nahi zaio.

## 1. Aldaketa politikoa egiteko aukera

Espainiak eta Frantziak betidanik estatu (eta nazio) homogeen gisa agertu nahi izateak, beren baitan indarrez lotuta izan dituzten herrien ukapena ekarri du. Horixe besterik ez da izan Euskal Herriaren eboluzioa. Gure nazio-zapalkuntzaren historia, Nafarroako Erresumaren konkista armatuarekin hasi zenetik eta azken bi mendeetako gertaera nagusienak soilik aipatuz, frantziar estatuan Iraultzaz geroztik eredu jakobinoa (uniformea) nagusitu zen eta huraxe lortzeko asmoa erakutsi zuen estatu espainiarrak ere XIX. mendean bertan. Ondorioz, Euskal Herriak ordura arte indarrean izan zituen erakunde eta eskubideak bertan behera geratu ziren. Ordutik gaurdaino euskal herritarrok geure eskubide eta instituzio propioen alde hamaika ahalegin egin ditugu.

Ahalegin horiek egin ditugula desitxuratu egin izan dute, batzuetan; askotan, goitik behera ukatu. Espainiako estatuak marko autonomikoa erabili zuen gure Herrialdeen zatiketa eta mendekotasuna luzatzeko. Frantziako estatuak, berriz, duela hamar urte bere amaraun instituzionalean garaiko Euskal Herriaren aldarrikapenak urtu nahi izan zituen, lurralde antolaketaren inguruko hitzarmenaren formulaz baliatuz. Hala ere, estatuen helburu horiei buelta eman eta, urte hauetan eginiko lan eta borroka

latzaren ondorioz, haien marko juridiko-politikoak krisian jarri ditugu. Euskal Herri osoan ez ezik, Espainia eta Frantziako estatuetak nazioetan ere aldaketa politiko, instituzional eta sozio-ekonomikoak egiteko premia geroz eta nabarmenago atzematen ari baita.

Hori, ordea, ez da doako jarduera izan Ezker Abertzalearentzat: aldaketa politikoaren eta Herri honen eskubideen alde eginiko apustu latza larrutik ordaindu du, urtetan errepresio gordina eta eskubide zibil eta politikoen urraketa aplikatu baitzaizkio. Saio antzua, nolana ere, Ezker Abertzaleak ederki asmatu baitu eraso eta gerra-estrategia hori deuseztatzen, ondorio latzak nozitu dituen arren.

Orain arte jorratutako errepresio-bide horiek ustelak izan dira bi estatuentzat; konponbide politiko eta elkarrizketa-bidetik jotzeko beharra apurka-apurka nagusitu da euskal jendartean, eragile ugari eginiko proposamenetan eta eztabaida politikoetan agertu den modura

## **2. Nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala, estrategia politikoa**

Helmuga estrategikoetara iristeko bide bat baino gehiago aukeratu eta erabili ditu Ezker Abertzaleak, unean uneko gorabehereri erreparaturik. 1970eko hamarkada grinatsuaren ondorio izan zen, adibidez, “negoiazio estrategia” izeneko hura: bertan, espainiar estatua mahaian eseri arazi eta Euskal Herriaren eta euskal herritar guztien eskubide demokratikoak aintzat hartuak izan zitezten bilatu zen. Estrategia haren gailurra Algerreko negoziazioa izan zen 1989an baina, bertan eraturako mahaia hautsi eta gero, Ezker Abertzaleak strategiaren moldaketa jorratzeko hausnarketari ekin zion.

Langileriak eta herri-sektoreek historikoki jorratu dituzten borroka-moldeetan aurkitu zen irtenbidea. Euskal Herriak bazuen tradizio handia ildo horretan, zapalketa eta klase -zein nazio- ukapenei herri estrategia kontrajartze kontuetan, hau da, arlo sindikal, politiko, sozial, kultural edota linguistikoan eginiko borroka txikietan. Txikiak baina, bere txikian, denak baturik, handi bihurtzen direnak.

Aspaldi honetan Ezker Abertzaleak landu nahi izan duen nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialeko estrategia horixe da. Horrek, bere baitan, hainbat dinamika biltzen ditu, helburua Euskal Herri independentea, sozialista eta euskalduna izanik. Hona

estrategia horren hiru ekinbide politikoak; bakoitzak bere ildo adierazten du baina hirurak lotuta doaz, elkar elikatuz:

- Herri honi inposatutako markoen ezinezkotasuna agerian utzi eta marko politiko berria herri-aldarrikapen edo errebindikazio bihurtzea.
- Herri garen aldetik, gure izaera-ikurren (euskara, ikurrina, etab.) eta eskaera sozialen kontra jokatzuz, Frantziak eta Espainiak egiten dizkiguten erasoei erantzutea: egungo jendarte-eredu neoliberal eta patriarkalak sortzen dituen diskriminazio egoerak gainditzeko indarrak batu eta eraiki nahi dugun Euskal Herriaren zutabe nagusiak lantzen hasteko.
- Gure proiektu politikoa gaurdanik landu eta euskal jendartean etengabe zabaltzea, eguneroko lan eta borrokaren bidez.

Nazioa eraiki eta jendartea eraldatzeko estrategia, independentea, sozialista eta euskalduna nahi dugun Euskal Herria lortzeko bidea den neurrian, prozesu horrek hainbat fase bete behar ditu, garaian garaiari egokitutako ildo politikoak urratuz. Egun, gure Herriaren testuinguru politikoan eragiteko, elkarrekin uztarturiko hiru ataletan oinarria duen ildo politikoa planteatzen du Batasunak: gatazka konpontzea, Euskal Herria ezkerretik eraikitzea, eta errepresioari eta eskubide zibil eta politikoaren urraketari erantzuna ematea.

Helburu estrategikoak lortzera doan bidea etengabeko eraldaketa prozesuak markatuko du eta, gainera, errealitatea transformatze horretan borrokaren eragina erabakigarria izango da. Batasunaren borroka-eremuak aurrerantzean ere hiru izango dira: masa borroka, borroka *instituzionala eta borroka ideologikoa*. Herritarren protagonismoa bultzatzea den Batasunaren lehentasun hori lortuko da, parte-hartzean oinarritutako ereduari jarraikiz, komunikazio zuzena bultzatuz, sormena landuz eta kale-dinamika suspertuz.

### **3. Nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialaren bidetik: *Orain Herria, Orain Bakea***

Nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialeko estrategian emandako urte hauetan garrantzi handiko urratsak egin ditugu. Marko politikoaren eztabaida, adibidez, irekita

dago Euskal Herri osoan: oraingo marko politikoa agortua dagoenez, berria eraiki behar dela aitortzen du gehiengo sozialak; beste horrenbeste gatazka konpontzeko askatu beharreko korapiloei dagokionez; horiexek autodeterminazioa eta lurraldetasuna direla dio eremu sozial zabalak. Marko politiko berria eraikitzeko beharra zabaltzea, beraz, lortzen ari gara. Eta hori ez da helburu txikia, izan ere, egungo markoaren gainditzeak baldintza demokratikoak ekarri behar dituelako, besteak beste, gure proiektu politikoa ere garatu ahal izateko.

Horregatik, eginiko urratsak aintzat hartuta, eraberritu zuen **Batasunak** Konponbide Demokratikorako Alternatiba (*Orain Herria, Orain Bakea*), kinka politiko hauze gatazka politikoari konponbide justu eta demokratikoa emateko baliatu behar zela uste baitzuen.

Agiri hartan, **Batasunak** bi mahaik (eta bi akordio) osatutako prozesua egin behar zela plazaratu zuen: bata, Euskal Herriko eragile politiko, sindikal eta sozialen artean osatu beharrekoa; bestea, ETA erakundea eta bi Estatuaren artekoa. Azken hitza eta erabakia beti-beti Herriarenak direla (zeinahi akordio herri-galdeketa bidez onartu beharko da), eskubide eta aukeren berdintasuna bermatu ahal izateko, gizon-emakumeen partehartze politiko eta sozialean eragina duten baldintzei heldu behar zaiela aintzat hartu beharko da, prozesua demokratikoa izan dadin.

Norabide horretan, 2005. urtean, Nazio Eztatik Guneak bultzaturik, berrogeita hamabost eragile politiko eta sozialek, horien artean **Batasunak**, sinatutako Oinarriko Hitzarmen Demokratikoari (OHD) garrantzi berezia aitortzen diogu. Akordio horretan balizko prozesu politiko baten oinarri behinena (“Euskal Herri osoan, herritar guztiei, Euskal Herriaren etorkizunari buruz galdetu behar zaie, eragileok adostutako moduan”) zehazteaz gainera, aurrerako urratsak egin eta konpromisoak definitu dira.

Ildo hori urratzen jarraituko du **Batasunak**, funtsezkoa baita gaurko errealitatea kontuan izanik egituraketa berri baterako ibilbidea modu egokian lantzea. Denon ikuspuntuak eta iritziak hartu behar dira kontuan, akordioa denona izan dadin. Euskal herritarrek, modu libre eta demokratikoan, edukiko dute azken hitza, eta denek errespetatu beharko dute Herriaren epai hori: bai sinatzaileek, baita Espainiako eta Frantziako estatuek ere.

#### **4. Nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialerako bidean: *Euskal Herria Ezkerretik Eraikiz***

Gatazkaren konponbiderako geure alternatiba berriua aurkeztu genuen bezala, **Batasunak** eskaintza politiko berriua aurkeztu nahi du nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialerako estrategian, bide horretan eman diren pausu eta gertatu diren aldaketak aintzat hartuz. Horixe da *Euskal Herria Ezkerretik Eraikiz*.

Gatazka konpontzea ezinbesteko helburua da Euskal Herrian oinarrizko baldintza demokratikoak eskura ditzagun, baina arazoak eta zapalketa haratago doaz. Inposatzen diguten eredu neoliberal eta patriarkalak ondorio lazgarriak uzten ditu nonahi; Frantziak eta Espainiak, bestalde, estrategia bortitza darabilte Euskal Herriak nazio-izaera gal dezan. Egoera horretan demokrazia eskuratzea behar-beharrezko helburu denez, horretarako, oinarrizko eskubide indibidual eta kolektiboak eskuratzeko borrokan parte hartzen jarraituko du **Batasunak**, eskubide horiek errespetatu ezean gure proiektu politikoa ezin baita ulertu.

Horrela jokatzean, bat egiten dugu historikoki Euskal Herrian sortutako hainbat erantzun mota eta esperientziarekin, Herriak jasotako erasoak ez baitira erantzunik gabe geratu, tradizio luze emankorrak erakusten digun bezala. Langileek aurre egin diete (greba eta bestelako mobilizazioez) kapitalismoaren arau gordinei; kapitalismoaren aurkako borrokari emakumeek/ok jendarte patriarkalaren kontrako ekinbidea gaineratu diote/gu, hainbat borroka sozial eta ekologista garatu dira behin eta berriro... Borroka horiek guztiak nazio izaerarekin uztartu dituzte euskal herritarrek. Prozesu horretan, borroka-forma zabal ikusgarriak ez ezik, tokian tokiko plegu txikiak ere erabili dira, langileen, herri mugimenduen, emakumeen, gazteriaren eta, oro har, euskal herritarren arteko elkartasunean oinarri hartuta.

Eskaintza berri honekin, Herriaren borroka-forma zabal eta txiki horietan sakondu nahi du **Batasunak**, bera dagoen lekuan bere laguntza eta, ez dabilen tokietan bere adorea eskainiz. Maila guztietan nazioa altxatzeko eta jendartea aldatzeko lanean ari diren herri mugimendu eta sektore zabalekin elkarlanean aritu nahi dugu, nor bere funtzio eta eginbeharrari helduta, denok norabide berean eta helburu berdinekin. Norabide horretan, alternatiba politiko orokorra eta integrala garatu nahi du **Batasunak**.

Finean, estaturik izan gabe, lurralde bat Herri bihurtzen duten atal guztien defentsa egitea da helburua. Horrela, nazio eta herritar garen aldetik zor zaizkigun eskubideak errebindikatzen ditugu, eta horiek defendatzeko eta garatzeko estrategia jarri dugu martxan. Eskaintza honen asmoa, Espainia eta Frantziaren jokaera ukatzaile eta zapaltzaileei jendartearen atal guztietan erantzun eta borrokatzea da: herritarroi eta Herriari ukatu edo zapaldu zaizkion eskubideak salatu, eta gure alternatiba zutik jartzea.

Nazio eraikuntzan dagoeneko garrantzi handiko aurrerapausoak egin dira: Udalbiltza, Nazio Eztabaida Gunea, Nazio Garapenerako Biltzarra, tokiko esperientziak eta, bide beretik, beste asko ere etorriko dira.

#### **4.1. Herri eta herritarren eskubideen defentsa Euskal Herri berrirako bidean**

**Batasunak** alternatiba politiko integrala eskaini nahi du. Badu proiektu politiko propioa eta, herritar guztiei dagozkien eskubideak urratuta daudenean, lehentasunezko bihurtzen da eskubide horien aldeko borrokan jardutea, azken finean pentsa ezina baita gure proiektu politikoa oinarrizko eskubide horietatik at gorpuz litekeela. Hortaz, **Batasunaren** helburu nagusiak —Euskal Herri independentea, sozialista eta euskalduna— edukiz bete nahi ditugu: errebindikatzen ditugun nazio eta jendarte askeak batari eta besteari dagozkien eskubideak bermatuz lortuko dira, urrats asko eginez, handiak tarteka, txikiak tarteka.

Eskubide horiek beren osotasunean ulertzen ditugu: indibidualak (euskal herritarrari dagozkionak) eta kolektiboak (Euskal Herri osoarenak). Elkarren osagarri dira eskubide horiek, gainera: herritar guztiei eskubide indibidualak bermatu behar zaizkie baina eskubide kolektiboen parte bat pertsona bakoitzari ere dagokiola ahaztu gabe.

Naziotasuna maila indibidualean onartzea —batzuek defendatzen duten bezala— mugatuta geratzen da, naziotasun horri estatu independente izateko eskubidea ukatzen bazaio. Era berean, euskara ikasteko eskubide pertsonala aitortu behar zaie herritar guztiei baina, euskararen geroa seguru ikusteko, erabilerari erreparatu behar zaio eta, orduan, dimentsio kolektiboa hartzen du. Euskal herritar guztioi, beraz, zor zaizkigu hainbat eskubide hainbat eremutan (sozio-ekonomikoan, parekidetasunean, hezkuntzan...) baina, horiez gainera, badugu Herri gisa jarduteko eskubidea ere. Badugu eskubidea, besteak beste, euskal esparru sozio-ekonomikoa osatzeko, geure

burua nazio gisa erakundetzeko, nazio hezkuntza sistema sortzeko... eremu guztietan era berdinean.

Eremu horietan guztietan jardun nahi du **Batasunak**. Bere egintza politikoan eskubideen urraketa oinarri politikoa salatuko du, baina horretara mugatu gabe. Izan ere, eskubide asko modu formalean aitortzen dira, nazioarteko legeriak hala aginduta, baina praktikak hutsune gehiegi erakusten du eskubide horiek bermatzeko momentuan. **Batasunak**, berriz, irmo eta sendo jokatu nahi du horretan. Eskubideak aitortzearen alde lan egiteko konpromisoa hartu dugu; aitorturik daudenean, eskubide horiek bermatu eta betearazteko hitz emanak gaude. Eskubideen aldeko borroka eta dinamika dira beraz, nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialaren oinarria gure proiektu politikoaren garapenean.

Zein dira eskubide horiek? Askok, eta eremu ugariak. Hori dela eta, ondoren aipatuko ditugun eginbeharrek **Batasunaren** egitasmo osoa islatzen ez duten arren, nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialeko estrategiaren lan-ildo nagusiak zein izango diren ederki agertzen dituzte. Hona:

◆ **Naziotasun eskubidea eta herritartasun eskubideak.** Estaturik osatu ez arren, herritar askok eta askok Euskal Herria bere naziotzat jotzen du. Nazio Batuek onartua duten oinarriko eskubide hori, ordea, Espainiak eta Frantziak ukatu eta jazartzen dute. **Batasunak**, aitzitik, eskubide hori errebindikatzen du Euskal Herrian bizi diren pertsona guztientzat, eta naziotasuna gozatzeko ez ezik, gure etorkizuna arautzeko eta erabakiak hartzeko eskubidea ere aldarrikatzen du pertsona horientzat.

Eskubide hori praktikan ipintzeko, Euskal Herriaren Naziotasun Aitormena (EHNA) abiatu du gure lehen nazio erakundea den Udalbiltzak, norberak sentitzen duen herritartasun edo naziotasuna aitortzeko adierazpen publiko gisa. EHNA bizitzaren eta jendartearen esparru guztietan erabiltzeko aukera irabaztea da gure apustua, eskubidezkoa baitugu. Naziotasun aitormenaren aldeko ildoan, euskal kirol selekzioen inguruan abiatutako dinamikari eutsi eta berau indartu beharra dago.

◆ **Euskal Herriak bere hizkuntza eskubideak eta hizkuntza politika.** Euskal Herriak badu berezkoa duen hizkuntza, euskara, beste inon mintzatzen ez dena; hortaz, euskal herritarrok konpromiso berezia erakutsi behar dugu euskararen egoera normalizatzeko. Oraingo administrazioek darabiltzaten hizkuntza politika horiekin

euskararen geroa ez dago inondik ere bermatua. Hori dela eta, **Batasunaren** proposamena hau da: euskarak Europako edozein hizkuntza ofizialek duen berdintasunezko estatusa eta parekotasunezko egoera lortzea Euskal Herri osoan, hala maila juridikoan, nola politiko eta soziolinguistikoan.

Hizkuntza Politika berri horren barruan eginkizun hauek ditugu: euskara Euskal Herrian ofizial bihurtzea; belaunaldi berriak euskaldunak izango direla bermatzea; administrazio eta zerbitzu publiko guztiak euskaldun bihurtzea; lan esparrua —enpresa pribatua, bereziki— euskalduntzeko baliabideak jartzea; udalerrri euskaldunen garapen iraunkorra babestea; hedabideetan eta kultura produkzioan euskara lehenestea; eta, aurreko guztia lortzeko, beharrezkoak diren era guztietako baliabideak prestatzea.

◆ **Euskal Herriak bere kultura eskubideak eta kultura politika.** Kolektibo guztiek dituzten ezaugarriak biltzen ditu kulturak; kolektibo baten izaera eta nortasuna kultura bidez sortu eta birsortzen da. Ikuspegi horretatik begiratuta, indarrean dagoen kultura menperatzaile burgesak jendartea ulertzeko eredu patriarkal, neoliberal eta espainiar-frantsesa inposatzen digu, gezurrezko *kultura unibertsalaz* mozorroturik zenbaitetan. **Batasunak**, berriz, nazio herri kultura sortzeko erabaki argia hartu du.

Ildo horretan, ezinbestekotzat jotzen dugu kultura garatzen duten azpiegiturak maila guztietan laguntzea; Euskal Herriko ondare historikoaren behatokia sortzea; arte plastikoak bultzatzea eta herritartzea; kultur industria eta kultur ekimenak sustatzea; ikus-entzunezkoen institutua sortzea, zinemagintza eta telebista publikoa, besteak beste, kudeatzeko edo laguntzeko; liburugintza, itzulpengintza eta musikagintza maila guztietan sustatzea; nazio liburutegia sortzea; arte eszenikoak bazterketatik atera eta bultzatzea; komunikabideak lagundu eta euskal nazioarekiko errespetuan jardun dezatela eskatzea.

◆ **Hezkuntza eskubideak eta Euskal Herriko hezkuntza-sistema burujabea.** Egun frantziar eta espainiar estatuek inposatzen dizkiguten hezkuntza-sistemek Euskal Herria bera, euskaldun gisa garatzeko eskubideak eta herri proiektu propioa eraikitzea ukatzen digute. **Batasunak** hezkuntza-sistema burujabea bultzatuko du, gure hizkuntza eta kulturaren transmisioa eta norbanakoen garapen integrala bermatuko dituena; herri-garapen sozio-ekonomiko jasangarria, justizia soziala eta parekidetasunean oinarritutako jendartea erdiesteko baloreak landuko dituena.

Ildo horretan, ezinbestekoa dugu Euskal Herriaren zerbitzura egongo den eskola eta unibertsitatearen aldeko pausuak ematea eta, zentroen autonomian oinarrituz, partaidetza demokratikoa ziurtatuko duen eredu publiko herritar inklusiboa bultzatzea: hezkuntza etapa guztietan euskaraz hezi eta bizi dena; euskal curriculumaren garapenean agente aktiboa izango dena; euskaldun eleanitzak formatuko dituen; ikaslearengan, ikaskuntzan eta irakasleriaren etengabeko formazio-hausnarketan oinarri duena; autonomia eta pentsamendu kritikoa bultzatuko duena eta, komunitateko kide guztien eskubideak praktikan gauzatuko dituen, ikasleen eskubideetan arreta berezia jarritz.

◆ **Eskubide sozio-ekonomikoak eta eraldaketa sozialaren aldeko politika.**

Gaur egun, Euskal Herriko eta Europar Batasuneko administrazioak aplikatzen ari diren eredu kapitalista suntsitzailea gelditu behar da, herritar asko eta askoren pobrezia eta bizi-baldintzen okerragotzea eragiten baitu. Eredu horren ordeztelako balioak proposatzen ditu **Batasunak**: elkartasuna, berdintasuna, ondasunaren banaketa eta natur baliabide mugatuaren iraunkortasuna. Balio horiek ardatz harturik, euskal esparru sozio-ekonomikoa eta lan-harremanetarako euskal esparrua osatzea oinarritzko helburu dugu, ezkerreko alternatiba gorpuzteko bidean.

Bide horretatik, gure lehenengo erronka nagusia egungo prekariotasunari aurre egitea eta herritar ororen gutxieneko eskubide sozial eta ekonomikoak bermatzea da: pertsona guztien gutxieneko baliabide ekonomikoak, ezinduen zaintza, etxebizitza eskubidea eta enplegu duina ziurtatzea, gutxienez. Horiez gainera, azpiegitura erraldoien negozioari bidea moztea, natur baliabideen gestio arrazionala egitea, lurralde antolaketa orekatua eta garraio sistema publikoa eta intermodala bultzatzea ere saihestu ezinezko apustuak ditugu.

◆ **Ama Lurra defendatzeko eskubidea, ingurugiro eta lurraldearen antolaketa politika.** Lurra ez da gizon-emakumeok jarduera ekonomiko eta sozialak agertzeko erabiltzen dugun eszenatoki hutsa. Lurrak baditu bere muga naturalak, eta oreka hori ezin hautsizkoa da. Kapitalismo neoliberalaren doktrina aplikatzen dutenek hori ez errespetatzearen ondorioz, lurra suntsitzen ari dira. Horren aurrean, gure natur baliabideak babesteko, horien erabilera zehazki planifikatzeko eta gure premien araberrako lurralde-eredu propioa antolatzeko, herritarren partehartzea bermatuko duen

Euskal Herriko Lurralde Antolaketa diseinatzea proposatzen du **Batasunak**, herri-erretabaidak eta galdeketak egiteko aukera emanaz.

Eginkizun horretan ezinbestekoa dugu arrantza eta nekazaritza mantendu eta indartzea; produktu transgenikoen aurka jardutea; kalitateari lehentasuna ematea, ingurugiroa errespetatu eta tokian tokiko ekonomia lagunduko duen arrazoizko kontsumoa bultzatzea; programa energetiko ez-kontrolatu eta kutsatzaileen eraikuntza oztopatzea eta aurrezkiaren eta energia berriztagarrietan oinarrituriko politika energetikoa babestea; proiektu suntsitzaileak geldiaraztea; politika eraginkorrak babestea, hiri-hondakinen sorrera gutxitzeko, gestioa hobetzeko eta birziklapena bultzatzeko.

◆ **Emakumeen/on eskubideak eta genero parekidetasunaren aldeko politika.** Patriarkatuan oinarritutako ereduak gure jendartean aspaldi ezarri zituen harreman hierarkikoak emakumezkoen gizasemeekiko mendekotasuna ekarri du. Mendekotasun horren agerpen dira emakumeak jendartean duen partehartze asimetrikoa, lanaren munduan jasaten duen diskriminazio objektiboa edota, are eta larriago, etengabe jasaten duen biolentzia sexista. Horren aurrean, jendarte alor guztietan emakumeen/on diskriminazioa suntsituko duten ekimenak bultzatu behar ditu **Batasunak**.

Betebeharrak asko dira, diskriminazioa bizitzako eremu ugarritan agertzen baita, baina funtsezkoa da emakumearen identitatearen aitortza lantzea, hori baita sistemak ezarritako bazterkeria, gutxiagotze eta mendetasuna gainditzeko ezinbesteko baldintza. Ahalegin horretan, ondoko irizpideak kontuan hartuko dira: parekidetasuna partehartze sozialean, emakumeak bere identitatez jardun ahal izan dezan; aukeren berdintasuna arlo guztietan eta, hori lortzeko, neurri positiboak hartzea; eta emakumeek berariazko eskubideak eskuratzea.

◆ **Gazteen eskubideak eta euskal gazteriaren aldeko politika.** Euskal Herriko gazteriak ohiko arazo sozialak nozitzen ditu baina, gazte izateagatik, modu gordinagoan pairatzen ditu prekariotasuna, bizi-baldintza ezegokiak, partehartze sozialik ez izatea, etab.; horiez gainera, baditu berariazko arazoak ere. Kolektibo aske gisa bizi eta garatzeko, gazteriari dagozkion eskubideen babes eta defentsa egitea bere gain hartzen du **Batasunak** eta dituen bitarteko eta baliabide guztiak erabiliko ditu jendartearen egoera horretaz jabe dadin eta gazteriari, kolektibo den aldetik, zor zaizkion hitz eta erabaki eskubideak aitortzeko ere.

Gazteriaren aldeko politika hainbat alorretan agertzen da. Lehenik eta behin, jendarte-sektore denetan gazteen partehartze aktiboa bultzatu behar da; bizi-baldintza duinak ziurtatzeko, etxebizitza politika eraginkorra eta jendartea babesteko eskubidea exijitu; lan munduan, prekariotasunaren kontra jo, eta lan baldintza duinak bermatu; hezkuntzan, ikasleen eskubideak defendatu; eta emakume gazteen berariazko egoerari erreparatu.

◆ **Osasunarekin loturiko eskubideak eta osasun-politika.**

Osasuna oinarrizko eskubidea dugu, biziari eta bizitzari estuki lotua. Hala ere, bizitzaren arlo guztietan merkantilizazioa bultzatzen duen sistema kapitalistak hau ere negozio gisa ulertzen du eta, unibertsala izan beharko lukeen eskubidean, ikuspuntu etikotik ulertezinak diren bereizketak sortzen ditu. **Batasunaren** ustez, aldiz, osasuna gizon eta emakume guztiei dagokien eskubide sozial, ekonomiko eta kulturala da, berehalakotasunez exiji daitekeena. Are gehiago, ez gara mugatzen osasuna/gaixotasuna binomiora, lan prekarioa, ingurugiro kutsadura edo bazterkeria nagusi diren jendartean osasunik egotea ezinezkoa dela uste baitugu.

Osasun zerbitzu publikoa exijitzen dugu, hortaz, ondoko ezaugarriak izango dituen: euskal herritar guztiei zabalik egon eta publikoa eta doakoa izatea; elkartasun irizpidean oinarritzea eta, hortaz, herritar guztiei baldintza beretan eskaintzea; integrala, prebentzioa, asistentzia eta errehabilitazioa barne harturik; hainbat terapia-motari zabalik egotea; onbera izatea, pertsona eta komunitateen bereizgarri eta duintasuna errespetu guztiz zaintzen dituen; partaidetzazkoa eta demokratikoa, programa eta erabakien plangintzen kontrol soziala ziurtatuz; eta langile eta erabiltzaileen artean euskararen erabilera bermatuko duena.

◆ **Euskal Herriak bere migrazio eta aniztasun politika.** Bere herrialdetik irtetea ohiko jokaera izan du pertsonak Historian zehar eta Euskal Herriak berak ere ederki ezagutu du joera hori, bertatik alde egin eta beste tokietatik herritar asko etorri delako gure historian. Euskal Herriaren egokieran, beste herrietatik etorritako pertsona eta kolektiboek dagokienez, baliabide politiko, ekonomiko eta kulturalak definitzeko eta aurrera ateratzeko eskubide ukaezina dugu, Herri garen aldetik, eta horrelaxe aitortu behar zaigu. Baliabide horien bitartez onartzen da, alde batetik, euskal naziotasuna lortzeko aukera (erresidentzia eta naziotasuna, eta horren ondoriozko eskubideak) eta, bestetik, kanpotik etorritakoak gure jendartean integratu eta bertakoekin berdintasun

mailan bizitzea. Burujabetza prozesuan eskubide hori gestionatzea funtsezkoa dugu: nondik gatozen kontuan hartu gabe, burujabetzak baino ez ditu bermatuko Euskal Herrian bizi garenon hiritartasun, erresidentzia eta naziotasun eskubideak.

Hortaz, orain arte zenbait indar politiko eta sozialek inposatutako ikusmoldeak albo batera utzi beharrean gaude: bai estatua oinarri dutenak, bai kutsu asistenzialistakoak ere. Geure ikuspegitik enfokatu behar ditugu eskubideok mugaketa eta zatiketaren aurrean, lurraldetasuna eta nazio ikuspuntua hobestea; bazterketa soziala besterik aintzat hartzen ez duenaren aurrean, osagarria eta zeharkakoaren aldea azpimarratzen dugu, subjektuaren onarpena eta autonomia ahaztu gabe. Helburu hori gauzatzeko, ondoko lau arlo hauetan jardutea proposatzen dugu: integrazio soziala bideratzea (horretarako, etxebizitza duina eta osasun zerbitzuak bermatzea eta lan merkatuaren prekarizazio eta esplotazioaren kontra egitea), naziotasun eskubidea onartzea (jatorrizko naziotasunarekin bateragarri eginez eta Espainia, Frantzia eta Europar Batasunaren legeria diskriminatzailea salatuz), haien hizkuntza, kultura eta identitatea onartuz, gureak ere eskaintzea (horretarako, beharrezko diren pausuak ematea) eta, alor indibidualean egiten den bezala, maila kolektiboan ere nazioarteko elkartasun eta elkarlanean aritzea.

#### **4.2. Euskal Herria, lan eremu eta eragin gune nagusia. Nazio estrategia, ardatz**

Euskal Herria bere osotasunean hartzen duten ekintza mota guztiek berebiziko garrantzia dute, Herri gisa bizirauteko eta hazteko nazio estrategia garatu behar dugu eta. Nazio mailako erakundeak osatu eta garatzea premiazko zeregina da alor guztietan, instituzionalean zein sozialean.

Norabide horretan garrantzi handiko urratsak egin ditugu dagoeneko. Udalbiltza itzelezko aurrerapausoa izan da Euskal Herri osoa erakundetzeko bidean; Nazio Eztabaida Guneak Euskal Herri oso horretan sinesten dutenen bilgunea izan nahi du; eta Nazio Garapenerako Biltzarrak nazioa eraikitze bide horretako arazoak aztertu, indarrak metatu eta norabide berean joateko plangintza egin nahi du. Horiek, ordea, ez dira saio bakarrak: atalka bada ere, hainbat ahalegin egin berri da (Gaindegia, Euskal Herriko Gazte Bilgunea, etab.) eta kontaezinak dira tokian tokiko esperientziak ere.

Tokiko esperientzia horiek aipatu ditugu nazio dimentsio horrekin batera, herrialde, eskualde edo herri mailan ere ehunka ekimen abian jarri baitira, nazio marko horretara heltzen ez diren arren. Horiek ere bultzatu eta indartu nahi ditu **Batasunak**,

aurrekoen aberasgarri eta osagarri baitira. Euskal Herria da, zalantzarik gabe, gure eragin gune nagusia baina ez bakarra. Euskal Herria zazpi lurraldez osatua dago, eta bakoitzaren berezitasunek gure Herriaren izaera aberasten dute. Horiek denak errespetatuz eraiki eta eraldatu nahi dugu Euskal Herria. Are gehiago, nazio estrategiaren garapenak aukera apartak eskaintzen ditu lekuan lekuko errealitatei egokitzeko.

Bi estatuek inposatutako esparru juridiko eta politikoen eraginez, Euskal Herria hiru barruti administratibotan zatiturik dago; horiez gainera, Trebiñu eskualdea eta Turtzioz herria beste bi barrutitan ditugu. Mende askotako zapalkuntzaren ondorio diren esparru hauek herri gisa eraikitze aukera ukatzen dutenez, **Batasunak** errotik aldatzeko apustu politikoarekin aurrera jarraituko du. Adiera horretan, **Batasunak** trantsiziozkotzat jotzen ditu barruti hauek: lurraldeen batasuna osatu bitarteko errealitate instituzionalak izan litezke, beraz, marko zaharretik berrirako iraganbidekoak.

Indarrean dauden artean barruti horiek eragina izaten dute bai gure Herriaren hainbat arlotan, bai eremu bakoitzeko herritarrengan. Hortaz, hiru esparru administratibo horietan ere eragile zuzena bihurtzeko jarrera du **Batasunak**, Euskal Herria eraikitze eta erakundetze bidean urratsak emateko beti ere, geure egitasmo instituzionalean aldarrikatzen ditugun eskubideak lantzeko, segurtatzen laguntzeko eta herritarren aldeko ezkerreko politikak bultzatzeko. Hona:

- Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan: gabezia handienetako bat esparru honen erakundetzerik eza delarik, egoera hori gainditzearen aldeko jarduna eta euskal herritarren eskubide guztiak errespetatuak izateko dinamikak bultzatuko ditugu.
- Nafarroa Garaiko Foru Komunitatean: Foru Hobekuntzak Nafarroa Garaiko erakundeak espainiar eredu autonomikoaren menpeko izatera behartzen ditu, politika burujabea egiteko aukera ukatzen die eta Euskal Herria osatzea galarazteko erabiltzen ditu. **Batasuna**, Nafarroa Garaiko erakundeek Euskal Herriaren eraikitze eta erakundetze prozesuan eragin dezaten saiatuko da. Bide horretan, nafar erakundeak eta beren baliabideak Euskal Herriari begira lanean jartzeko, euskal herritarren eskubide guztiak errespetatuak izateko eta erakunde horiek egun ez daukaten botere politikoa berreskuratzeko dinamikak bultzatuko ditugu.

- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Autonomia Erkidegoan: Itun autonomikoetan oinarria duen instituzio hau artifiziarki eraturako tresna da, eta historikoki Euskal Herrian eman den antolaketa instituzionalarekin zerikusirik ez izateaz gain gure Herriaren zatiketa indartzen duena. Zentzu horretan, **Batasunarentzat** ez du lekurik etorkizuneko Euskal Herriaren nazio erakundetze estrategikoan. Bitartean, **Batasunak**, Erkidegoko instituzio eta baliabideak Euskal Herriari begira lanean jartzeko eta euskal herritarren eskubide guztiak errespetatuak izateko dinamikak bultzatuko ditu.

Errealitate politiko, instituzional eta administratibo horiek gainditu beharrekoak dira Euskal Herria batzeko eta nazio esparru berria osatzeko. Lurralde batasuna prozesu politiko baten ondorio izango da, beti ere ibilbide demokratikoa jorratuz, herritarren atxikimenduaren baitan eta beren nahia errespetatuz garatua.

## **5. Independentzia eta sozialismoa helburu, gaurtik biharko Euskal Herria eraikiz**

Gizon eta emakume librez osatutako Euskal Herri askea da gure azken helburua. Independentzia eta sozialismoaren proiektu politiko estrategikoari ezaugarri eta ekarpen ezberdinak gehitzen ari gaitzaizkio iraunkorki eta oraingoan, sozialismo identitarioaren gorpuzte bidean euskal feminismoaren aldarrikapena sakondu dugu, eredu ez patriarkalaren eta genero parekidetasunaren aldeko borrokan jarduteko.

Proiektu politikoa urratsez urrats aberasten ari da **Batasuna**, eta feminismoaren aldarrikapenaren sakontzea eman den neurrian egin dira beste batzuk ere. Horiek denak Euskal Herri independentea, sozialista eta euskaldunaren proiektu estrategikoaren integritasunari dimentsio zabalagoa ematen diote, eta horixe da aurrera begira **Batasunak** duen egitekoetako bat: izaera integrala duen proiektu politikoa osatuta jasotzea. Horra hor konpromisoa.

### **5.1. Independentzia: mundu zabalean gainerako estatuen pare jarriko den Herria**

Euskal estatua eraikitzea da Ezker Abertzaleak duen azken helburu estrategikoetako bat, behinolako Nafar Estatuaren erreferentzia berreskuratuz eta gaurkotuz. Euskal estatua gorpuztu nahi dugu, euskal herritarren alde aritzeko, estatuak

bakarrik berma baitezake gaur sektore publiko sendoa, politika ekonomiko eta sozial aurrerazaleak garatu ahal izateko. Euskal estatua nahi dugu, gainera, estatua delako oraindik edozein naziok eduki dezakeen burujabetza-mailarik handiena.

Ez dugu inor baino gehiago izan nahi baina, esperientziak behin eta berriro erakutsi digunez, nazio bezala irauteko dugun aukera bakarra estatu bihurtzea da. Azken mendeotan herriek beren burua politikoki egituratzeko hartu duten forma nagusia nazio-estatu izan da eta horrela izaten jarraitzen du, zenbaitek eredu hori gainbeheran dagoela adierazi arren. Hori dela eta, aurrerantzean bestelako egituraketa motak nagusituko balira, Euskal Herria egituraketa horietara eramango genuke, gainerako herrien pare beti eta eurekin ahalik eta lankidetzaz girorik hertsienean biziz; baina, hori bai, mendetasunik gabe eta gure etorkizuna erabakitzeke libre izaki.

Estatua izanda ere, ez dugu nazio-estatuaren izaera zapaltzailea errepikatzea nahi, ez dugu estatu zentralista eta herritarren eta herrien kontrolatzailea osatu nahi. Herrien eta herritarren eskubideak arreta guztiz zaintzea izan behar du euskal estatuaren jokaerak eta, horretarako, izaera federala eman behar zaio estatuari, ahalik eta deszentralizatuena izan dadin. Horrezaz gain, bera osatzen duten identitateei erreparatu, asimilazioan edo berdintasun uniformatuan oinarritutako ereduak uko egiten diegu.

Azken helburu hori lortzea ez da egun bateko kontua, ordea. Euskal Herriak gaur nozitzen duen barne-desegituraketa nabaria oztopo itzela da helburu dugun lurralde-batasun horretara heltzeko. Bitartean trantsizio faseak beteko dira eta **Batasunak** kontu guztiz aztertuko ditu fase bakoitzean egon daitezkeen alternatibak, geure azken helburuen bidean ipintzen gaituenen alde borrokatuz nolana ere.

## **5.2. Sozialismoa: esplotaziorik gabeko mundua sortzea**

Ez gara bizi mundu zuzen batean, menperatzaile eta menperatuen arteko harremanek osaturiko batean baizik. Baliabideek eta bitartekoez gaizki banatuta jarraitzen dute, bai munduko herrien artean, baita herri bakoitzeko klaseen artean ere, eta eskubide indibidual eta kolektiboak zanpatuta daude nonahi. Ez dugu inongo zalantzarik, berriz, okerreko banaketa, munduaren suntsiketa ekologiko eta eskubideen zanpaketa horien iturria sistema kapitalista bera dela; hortaz, Ezker Abertzaleak ezinbestekoa deritzo sistema kapitalista hau erro-errotik eraldatu eta inongo

esplotaziorik onartuko ez duen ordena sozial eta ekonomiko alternatibo berria eraikitzeari.

Gure alternatiba euskal demokrazia sozialista da, sozialismoaren balio unibertsalak jasoko dituen eta gure nortasunari eta berezitasunei egokituko zaiena. Sozialismo identitario hori behetik gorantz eratua izango da, herritarren partehartzea bilatuz, herrien kulturak eta aniztasuna onartuz, elkartasunean eta berdintasunean oinarritua eta, hartara, herri bakoitzaren jendarte, ekonomia, kultura eta lurralde mailako ezaugarriak errespetatuko ditu.

Nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialeko estrategia honetan adierazi dugun bezala, ordea, emaitzak ez ditugu iraultza prozesu baten osterako uzten. Borroka handiak borroka txikiekin batu nahi ditugu, gaurdanik hasita, sozialismoa edukiz bete nahi baitugu. Gaurdanik eta eguneroko lana eta borrokaren bidez, epe laburrean lorgarri eta, aldi berean, aldatzaile diren helburuak markatu ditugu, era horretara sozialismoaren bidean urrats eraginkorrak emateko.

Gure eguneroko jardun horretan baditugu dagoeneko ildo nagusi batzuk markatuak. Ondasunen banaketa zuzenagoa lortzeko asmoz, bestelako zerga eta aurrekontu politika banatzailea ezartzea proposatzen dugu, gastu soziala eta etxebizitza eskubidea lehenetsiz eta lanpostu duinak bultzatuz. Euskal Herriko ehun produktiboa ere egituratu behar da, industria, nekazaritza eta arrantza izaera estrategikoz jantziz, oinarritzko ekonomiaren kontrola sektore publiko, moderno, eraginkor eta gardenaren eskuetan jarriz eta herri ekonomia solidario baterantz abiatuz, ingurugiroarekiko errespetu osoz jardunez. Zentzuzko kontsumoa kontsumismotik bereizi nahi dugu. Lurraldearen plangintza orekatua nahi dugu. Emakumeen/on kontrako diskriminazio mota oro salatu eta desager daitezen borrokatu beharra dago.

Nazioarteko merkatu-harreman zuzenago eta solidarioagoak proposatzen ditugu, ezkertiar bezala defendatzen dugun internazionalismoak konpromiso sendoa eskatzen baitigu mundu zabaleko herri zapalduekin. Elkartasun internazionalista horrek, herrien autodeterminaziorako eskubidearekin batera, gure ildo politiko teorikoaren eta praktikoaren ezaugarrietako bat izan behar du, hori baita bestelako mundu bat bideratzeko zutabe nagusia eta, nola ez, justizian, berdintasunean eta askatasunean oinarrituriko nazioarteko ordena berria bermatzeko bide bakarra.

## **Feminismoa: gizon eta emakume askez osatutako Euskal Herri librea**

Errealitate honi espezifikoki eta estrategikoki aurre egiteko borondatearekin atal berezitu gisa jasotzen dugu, nahiz eta emakumeek/ok pairatzen duten/dugun zapalkuntzari aurre egiteko, proiektu estrategiko integralaren baitan osatzeko eta garatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Era guztietako injustiziak gaindituko dituen sozialismoa eraiki nahi dugu gaurdanik, eta froga ederra dugu generoen arteko harremanetan, jendartearen erdia zapalduarik uzten duen errealitatea baita gutxien landu den ataletako bat. Emakumeen/on zapalketa horrek sustrai estrukturalak ditu, jendartea eratzeko eredua patriarkatuan oinarritzen baita, eta horrek gizon eta emakumeen arteko harreman hierarkikoa ekarri du, kapitalismoak ederki erabili duena, bai emakumeen/on eskubideak isilarazteko, eta bai doako bere lanaz baliatzeko. Arrazoi estruktural horien ondorioz, gizon eta emakumeen arteko diskriminazioa eguneroko hainbat arlotan islatzen da, eta hortaz, denok dugu zerbait egiteko egoera hori alda dadin.

**Batasunak** bere egiten ditu euskal feminismoaren ekarpenak, metatutako esperientzia baliagarritzat jotzen baitu Euskal Herrian generoen arteko benetako parekidetasun harremanak gauza daitezen. Bere lana, horrela, emakumeen/on zapalketan estalita dauden arrazoi estrukturalak agertaraztea eta salatzeaz haratago, errealitate hori aldatzeko proiektu zein estrategia integrala garatzea izango da.

Horretarako, egungo eredu sozio-ekonomiko, politiko eta ideologikoa eraldatuko duen bidea jorratu beharko dugu. Zehazkiago, emakumeen/on bizi baldintzak duinak eta ez mendekoak bermatuko duen eredu sozio-ekonomikoa, egun dagoen lan-enplegu banaketa gaindituz. Bestalde, parekidetasuna eta aukera berdintasuna ahalbideratuko duen jendarte eredu partehartzailea bultzatuz. Eta azkenik, sexu-genero harreman berriak sortzeko bitarteko ideologikoak garatuz: hezkuntza sistema, komunikabideak edo eta kultur ereduak.

Genero parekidetasun horretarantz goazela, ezinbestekoa da eredu patriarkalak ezartzen duen bazterkeria ezkutua agertaraztea, hori baita zapalketaren gainditzarantz joateko gakoa. Zehatzago, jendarte barruko parte-hartzeari begira, irakaskuntza eta komunikabideak landu beharreko sektore garrantzitsuak dira; arlo sozio-ekonomikoan, lan-enplegua ziurtatu, inolako diskriminaziorik gabe, eta etxeko-lanetan gizonen

erantzunkidetasuna bultzatu behar da; eta biolentzia sexistari aurre egiteko, jendartearen eta instituzioen inplikazioa areagotu behar dira.

Injustizia hautematen den leku edo unetan, zapalduetikiko elkartasuna eta egoerari aurre egiteko konpromisoa hartzen ditugu. Badakigu sozialismoaren bidea erronka latza dela baina, helburu horri aurre egiteko, ezinbestekoa da ezkerreko indarrak biltzea; hori dela eta, langileen eta herri-sektoreen antolaketa bultzatuko dugu.

### **5.3. Euskara: euskal herritar guztientzako tresna integratzailea**

Euskara Euskal Herriko hizkuntza nazionala da, eta euskal herritar guztiok dugu bera jakiteko, gordetzeko, zabaltzeko eta bizitzeko esparru eta funtzio guztietan baliagarri bihurtzeko eskubidea. Eskubide hori baliaturik eta normalizazio-prozesu baten ondoren, euskal herritar guztiak Euskal Herri osoan euskaraz mintzatu ahal izatea da Ezker Abertzalearen helburua.

Gaur hiru hizkuntza nagusi daude Euskal Herrian; egoera hauxe abiapuntu harturik, belaunaldi berriak euskara darabilten euskaldun eleanitzak izango dira eta, nagusien kasuan, erraztasun guztiak eskaini behar zaizkie euskaraz ikas dezaten. Euskarak, beraz, funtzio integratzailea ere beteko du, euskal herritar guztion arteko komunikazioa bermatzeko herritar eleanitzez osaturiko Euskal Herri euskalduna defendatzen dugun aldetik.